

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

JASANGARRITASUN, NEKAZARITZA ETA NATURA INGURUNEAREN SAILA

33/2023 Foru Agindua, uztailaren 28koa, Arabako Lurralde Historikoko ehiza jardueraren araudi espezifikoaren ezartzea 2023-2024 denboraldirako

Arabako Lurralde Historikoak badu ahalmena erkidego osoko erakundeek arautu ez dituzten arlo guztietan ehiza jarduerari buruzko arauak garatzeko, baldin eta erakunde horiek emandako arauekin bat badator. Ahalmen hori erabiliz, Arabako Lurralde Historikoko Ehizarako ekainaren 14ko 8/2004 Foru Araua onetsi zen. Foru arau horren 32. artikulua ezartzen du ezen, Ehiza Lurralde Kontseiluari entzun ondoren, Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailak onetsiko duela lurralde historikoan ehizan jarduteko arauak ezartzen dituen urteko foru agindua. Agindu horretan, gutxienez, honako hauek zehaztu behar dira: ehiza intereseko eta merkaturatzeko moduko espezieak, eta eremu bakoitzean espezie bakoitzari aplikatu beharreko arauak eta baimendutako aldi, egun eta orduak, bai eta baimendutako modalitateak eta harrapaketa ere.

Era berean, foru agindu hau bat dator foru aldundiek urtero eman behar dituzten debekualdiei buruzko foru aginduen gutxienezko edukiekin, Euskal Autonomia Erkidegoko Ehizari buruzko martxoaren 17ko 2/2011 Legearen 31. artikulua arabera.

Kontuan hartu dira ehiza arautzean eragina duten honako arau hauek: estatuko Ehizaren 1/1970 Legearen Araudia eta Ondare Naturalaren eta Biodibertsitatearen 42/2007 Legea, Europako Batasuneko 2009/147/EE eta 92/43/EE zuzentarauak, eta Bernako 1979ko Hitzarmena.

Era berean, Arabako Lurralde Historikoan baimendutako ehiza aldiak ezartzeko, Funtsezko Kontzeptuen Dokumentua (KCD) erabili da foru agindu hau egiteko. Europar Batasunean ehi-zakotzat jotzen diren hegaztien ugalketa eta eztei aurreko migrazio aldiei buruzkoa da dokumentu honen edukia, eta kontuan hartu da araudi hau egiteko orduan. Horri dagokionez, galeperraren aldi balioduna soilik luzatu da, eta sei egun aurreratu da irekiera, Arabako Lurralde Historikoko espeziearen errealitateari egokitzeko, orain arte dagoen ezagutza tekniko handiago eta hobean oinarrituta. Gainera, ehiza antolamenduan izan beharreko aplikazio praktikoari buruzko informazio hori espeziearen populazioari buruz urtero egiten diren azterlanen emaitzan oinarritzen da, eta Trantsizio Ekologikoko Ministerioak Europako Batzordeari helarazi berri dio oraintsu, basa hegaztiak kontserbatzeari buruzko 2009/146/EE Zuzentarauaren 7. artikuluan ezarritakoa betez.

Era berean, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2022ko maiatzaren 24ko Aginduan xedatutakoa betetzeko (agindu horren bidez, Basa Fauna eta Landaredian Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Zerrenda aldatzen da), usapala (*Streptotelia turtur*) «galtzeko arriskuan» dagoen espeziearen kategorian sartzen da, eta, beraz, lurralde barruko ehiza estatusa ere aldatzen da; izan ere, aurreko denboraldian debekatuta egotetik, egungo denboraldian ehiza aprobetxamenduaren xede izateari uzten zaio.

Kontsulta egin zaio Lurraldeko Ehiza Kontseiluari, 2023ko maiatzaren 4ko bileran.

Arabako Foru Administrazioaren Aholku Batzordeari entzun zaio, eta haren irizpena onartu da.

Foru dekretu hau izapidetzeko, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak jasotako arautze onaren printzipioei jarraitu zaie, zeinak Arabako Foru Aldundiaren xedapen orokorrak egiteko prozedura onesten dituen otsailaren 28ko 6/2023 Foru Dekretuaren 3. artikuluan ere jasota baitaude. Hala, azaldutako aurrekarietan behar bezala justifikatu da erregulazio berri baten beharra, eta, gainera, araugintza jarduera proportzionatua da; izan ere, lortu nahi den helburua lortzeko ezinbesteko gutxienez mugatzen da, hau da, debekualdien urteko agindua betetzea. Egiteko, kontuan hartu dira Arabako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Foru Planaren (2022-2026) inspirazio iturri diren emakumeen eta gizonen arteko berdintasun printzipioak, bai eta Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako legearen testu bategina onesten duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintza Dekretuaren edukia eta Emakume Nekazarien Estatutuaren urriaren 15eko 8/2015 Legea ere. Halaber, kontuan hartu dira, partzialki, Arabako Foru Aldundiko Berdintasun Zerbitzuak horri buruz egindako txostenean jasotako oharra. Halaber, segurtasun juridikoaren printzipioa bermatzen da, nahikoa justifikatuta gelditzen delako ordenamendu juridikoan sartzen dela eta hura ematen duen organoa gaituta dagoela. Gardentasun printzipioari dagokionez, ez da urratu, entzunaldiko eta jendaurreko izapideak bete direlako legez ezarritako epeetan. Eraginkortasun printzipioari dagokionez, planteaturiko arauketak, daukan izaeratik, ez du eragiten administrazio zama osagarririk eta beharrezkoak ez direnik herritarrentzat oro har, ezta baliabide publiko gehiago kontsumitzea ere. Sinpletasunaren eta ulergarritasunaren printzipioei dagokienez, proposatutako testua modu egituratuan eta hizkera argia eta ulergarria erabiliz idatzi da.

Diputatu nagusiaren ekainaren 30eko 152/2023 Foru Dekretua, 2023-2027 legegintzaldirako Arabako Foru Aldundiko sailak zehazten dituen, aplikatuz,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onestea Arabako Lurralde Historikoan 2023-2024 denboraldian ehizan jarduteko araudia, I. eranskinean jasotako artikuluen arabera.

Azken xedapena. Foru agindu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko uztailaren 28a

Jasangarritasun, Nekazaritza eta Natura Ingurunearen Sailaren diputatua
AMAIA BARREDO MARTÍN

Nekazaritza zuzendaria
MARÍA ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE

ERANSKINA

ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAN EHIZA 2023-2024 DENBORALDIRAKO
ARAUTZEN DUTEN BALDINTZA OROKORRAK EZARTZEN DITUEN ARAUDIA

1. artikulua. Baimendutako egunak eta orduak

1.1 Arabako Lurralde Historikoko ehiza barrutietan ehizan aritzeko baimendutako egunak honako hauek izango dira, oro har: aldi baimenduaren ostegun, larunbat, igande eta jaiegunak. Hala ere, aintzat hartu beharko da ehiza barruti bakoitzeko baldintza tekniko-zinegetikoen agiriak eta ehizako jarraipen planek eta ehiza aprobetxamenduko berariazko beste arau batzuek jasotzen dutena.

1.2 Oro har, 8:30etik 17:30era jardun ahal izango da ehizan, salbu eta debeku erdiko aldian, ehiza larrian, uso migratzaileak eta birigarroak tiro postu finkoetatik ehizatzen badira edo berariazko baimenik bada; horien ordutegia kasuan-kasuan finkatuko da baldintza espezifikoetan.

1.3 Foru agindu honetan eguzki irteera eta sarrera edo egunsentia eta iluntzea aipatzen direnean, erreferentzia bezala hartzen da Institutu Geografiko Nazionalak Arabako lurralderako argitaratutako egunsenti eta iluntze almanaka ofiziala (<https://cdn.mitma.gob.es/portal-web-dru-pal/salidapuestasol/2023/Vitoria-2023.txt>), kasuan kasuko urteari dagokionez.

2. artikulua. Debeku erdiko aldian

2.1 Egun baimenduak: ostegun, larunbat eta igande eta jaiegunetan jardun ahalko da ehizan, 2023ko abuztuaren 15etik irailaren 10era arte, biak barne.

2.2 Ordutegia: Ehizan jardun ahalko da egunsentitik ilundu arte.

2.3 Debeku erdiko aldian, honako espezie hauek ehizatu ahal izango dira: galeper arrunta (*Coturnix coturnix*), untxia (*Oryctolagus cuniculus*), belabeltza (*Corvus corone*), arabazozo pikarta (*Sturnus vulgaris*), mika arrunta (*Pica pica*) eta azeria (*Vulpes vulpes*).

Debeku erdiko aldian, pagausoa (*Columba palumbus*) abuztuaren 24tik irailaren 10ra ehizatu ahal izango da.

3. artikulua. Ehiza xehea

3.1 Egunak eta aldi baliioduna: Oro har, ostegun, larunbat, igande eta jaiegunetan jardun ahalko da ehizan, 2023ko urriaren 12tik 2024ko urtarrilaren 31ra arte, biak barne.

3.2. Jarraian adierazten dira ehiza xeheko zenbait espeziatarako baimendutako aldiak:

Uso migratzaileak eta birigarroak postu baimenduetatik ehizatu ahal izango dira ehiza xeherako baimendutako egunetan ez ezik, 2023ko urriaren 1etik abenduaren 15era ere, biak barne, edozein egunetan.

Arabako Errioxako postu baimenduetatik birigarroak ehizatu ahal izango dira 2023ko azaroko eta abenduak eta 2024ko urtarrilaren 31ra arteko egun guztietan.

Untxia 2023ko urriaren 12tik 2024ko otsailaren 29ra ehizatu ahal izango da honako udalerrri hauetan: Mañueta, Eltziego, Bastida, Guardia, Lapuebla de Labarca, Leza, Navaridas, Samaniego eta Eskuernaga.

Baimendutako oilagor zonetan, asteko egun guztietan ehizatu ahal izango da baimendutako aldiaren barruan.

3.3 Ordutegia: Uso migratzaileak eta birigarroak ehizatzeke postuak eta txabolak erabili ahal izango dira egunsentitik ilundu baino ordu erdi lehenagora arte baimendurako aldian, Guardia - Arabako Errioxako Kuadrillako postu finkoetan izan ezik, egunsentitik ilundu arte erabili ahal izango baitira.

3.4 Debeku erdiko aldian, honako espezie hauek ehizatu ahal izango dira:

Ugaztunak: untxia (*Oryctolagus cuniculus*), erbia (*Lepus sp*) eta azeria (*Vulpes vulpes*).

Hegazti sedentarioak: eper gorria (*Alectoris rufa*), faisaiia (*Phasianus colchicus*), arabazozo pikarta (*Sturnus vulgaris*), mika arrunta (*Pica pica*), belabeltza (*Corvus corone*) eta haitz usoa (*Columba livia*).

Hegazti migratzaileak: pagausoa (*Columba palumbus*), txoloma (*Columba oenas*), birigarro txikia (*Turdus iliacus*), garratarroa (*Turdus viscivorus*), birigarro arrunta (*Turdus philomelos*), durdula (*Turdus pilaris*), galeper arrunta (*Coturnix coturnix*), oilagorra (*Scolopax rusticola*) eta istingor arrunta (*Gallinago gallinago*).

Hegazti urtarrak: basahatea (*Anas platyrhynchos*), ahate txistularia (*Anas penelope*), ipar ahatea (*Anas strepera*), ahate buztanluze (*Anas acuta*), antzara hankagorritza (*Anser anser*), udako zertzeta (*Anas querquedula*), zertzeta arrunta (*Anas crecca*), ahate mokozabal (*Anas clypeata*), kopetazuri arrunta (*Fulica atra*) eta murgilari mottoduna (*Aythya fuligula*).

Aldi baterako debekatuta daude espezie hauek: istingor txikia (*Lymnocyptes minimus*), murgilari europarra (*Aythya ferina*) eta hegabera (*Vanellus vanellus*).

Aipatutako espezieen arauketa, haientzat indarrean dagoen babes estatusaren arabera egingo da. Foru agindu hau indarrean dagoen aldian hartan adierazten diren espezieetakoren baten babes estatusa aldatzen baldin bada, onartutako estatus berriaren arabera arautu beharko da. Egoera hori gertatzekotan, komunikabideen bitartez ezagutzera emango da.

3.5 Kupoak: jarraian adierazten dira zenbait espeziatarako baimendutako gehieneko kupoak, ehiztari eta egun bakoitzeko:

Eper gorria, hiru ale.

Oilagorra, hiru ale.

Galeperra, 15 ale.

Erbia, ale 1.

4. artikulua. Ehiza larria

4.1 Aldi baimenduak.

Jarraian adierazten dira zenbait espeziatarako baimendutako aldiak:

4.1.1 Basurdea (*Sus scrofa*).

Basurdea ehizatu ahal izango da 2023ko irailaren 1etik 2024ko martxoaren 15era arte, ostegunetan, larunbatetan, igandeetan eta estatuko, foru lurraldeko edo tokiko jaiegunetan, suzko armaz uxaldietan eta mendi ehizetan, eta arkuz uxaldietan, mendi ehizetan eta zelata ehizan. Arku bidezko zelata ehizan, jaurtiketa egin eta hurrengo eguneko lehen 12 orduetan ehizatu ahal izango da, alde zaurituta geratu diren piezak akabatzeko soilik.

Bakarkako jauzi ehiza: 2023ko irailaren 1etik 2024ko martxoaren 15era, ehiza larriko aprobe-txamendua duten eta ehizaren jarraipen planean jasota duten ehiza barrutietan.

4.1.2 Orkatza (*Capreolus capreolus*), 2023-2024 denboraldian, honako aldi hauetan ehizatu ahal izango da:

a. Arren udaberriko mendi ehiza: 2024ko apirila, maiatza eta ekaina.

b. Ar eta emeen udazkeneko mendi ehiza: 2023ko urria.

c. Emeen neguko mendi ehiza: 2024ko urtarrila eta otsaila.

d. Ar eta emeen udazkeneko uxaldiak: 2023ko urria.

e. Emeen neguko uxaldiak: 2024ko urtarrila eta otsaila.

4.1.3 Oreina (*Cervus elaphus*): 2023ko urriaren 12tik 2024ko otsailaren 28ra.

4.2. Baimendutako egunak eta orduak:

4.2.1 Uxaldian ehizatzeko baimendutako egunak ostegunak, larunbatak, igandeak eta jaiegunak izango dira, 8:30etik 17:30era bitarteko orduetan.

4.2.2 Orkatza zelatan ehizatzeko egun baliodunak, ehiza aprobetxamendurako planean besterik xedatu ezean, asteko egun guztiak izango dira, egunsentia baino ordu erdi lehenagotik iluntzea baino ordu erdi geroago arte. Parke naturalen barruan dauden ehiza lurretan, egunsentia baino ordu erdi lehenagotik 11:00 arte eta 18:00etatik iluntzea baino ordu erdi geroago arte, udaberriko zelalaldietan, eta egunsentia baino ordu erdi lehenagotik 11:00 arte eta 17:00etatik iluntzea baino ordu erdi geroago arte, udazkeneko eta neguko zelalaldietan.

4.2.3 Zelatan eta itxaronez edo zain egonez ehizatzeko egun baliodunak, espeziea ehizatzeko aldi balioduneko ostiralak, larunbatak, igandeak eta jaiegunak izango dira, egunsentia baino ordu erdi lehenagotik iluntzea baino ordu erdi geroago arte. Parke naturalen barruan dauden ehiza lurretan, ordutegia egunsentia baino ordu erdi lehenagotik 11:00 arte eta 17:00etatik iluntzea baino ordu erdi geroago arte izango da.

4.3 Kupoak: 2023-2024 denboraldirako, aurreko denboraldiko ehiza larriko kupo berberak ezarri dira mugatuentzat. Kupo horiek barruti bakoitzeko ehiza-jarraipenerako planetan sartu behar dira, eta, denboraldi bakoitza hasi aurretik, urteko ehiza-aprobetxamendua zehaztu behar da, Arabako Lurralde Historikoko Ehizari buruzko 8/2004 Foru Arauaren 31. artikuluko 3. paragrafoan ezarritakoaren arabera. Ehiza eta Arrantza Atalak ehiza-barrutien elkarteei eta horiei lotuta ez dauden ehiza larriko barrutiei jakinaraziko die zenbat ehiza-ale ehiza daitezkeen. Ez dago kuporik basurdea harrapatzeko.

5. artikulua. Baimen bereziak behar dituzten modalitateak

5.1 Arku bidezko ehiza urriaren 27ko 155/1999 Foru Aginduaren bidez arautzen da, eta beharrezkoa da ehiztariaren gaitasun ziurtagiria edo nortasun txartel homologatua lortzea.

5.2 Hegazti harrapariekin falkonerian aritzea otsailaren 4ko 55/2013 Foru Aginduaren bidez arautzen da, eta ehiza mota hori egiteko gaitasun ziurtagiria lortu behar da.

6. artikulua. Ehiza faunaren babes orokorra

6.1 Espezieen iraupenerako batere onuragarriak ez diren gertaera klimatikoek, biologikoek edo bestelakoek lurraldean edo eskualde zehatz batean ehiza fauna kaltetu badezakete, haiei aurrea hartzearen, urgentzia horretarako oztopo ez bada, eta Ehiza Lurralde Kontseiluari entzun ondoren, ehiza arloan eskumenak dituen sailak ehiza espezie horietako batzuk edo guztiak ehizatzeko baimendutako aldiak aldatu ahal izango ditu.

6.2 Oro har, ehiza barruti batean aldi berean bakarkako jauzi ehizan jardun dezake, gehienez ere, pertsona batek 100 hektareako. Pertsona bakoitzak gehienez hiru txakurrekin ehizatu ahal izango du eskopeta bakoitzeko, saltoan ehiza xehean.

7. artikulua. Merkaturatzea

Irailaren 15eko 1118/1989 Errege Dekretuak xedatzen duenez, hauek dira Araban ehizatu eta merkaturatu daitezkeen ehiza espezie bakarrak: basahatea, oreina, galeper arrunta, untxia, orkatza, faisaia, basurdea, erbia, pagausoa, txoloma, eper gorria eta azeria.

8. artikulua. Ehiza zehapenak

2/2011 Legearen 31.1 artikulua azken paragrafoan xedatutakoa aplikatuz, eguneratu egiten dira ehizako arau hausteengatik zehapenak.

2023-2024 denboraldian egindako arau hausteei dagokienez, isunen zenbatekoak honako hauek izango dira:

Arinak: 60,57 eurotik 605,62 eurora.

Larriak: 605,63 eurotik 2.422,48 eurora.

Oso larriak: 2.422,49 eurotik 7.267,44 eurora.